

TOKIKOM

2010eko azaroa | 98. zenbakia

aike

txorierriko aldizkaria

Ikertzaile sutsua

EUSKARAREN EGUNA

TXORIERRIN 2010

AURTEN LEZAMAN



BEGOGA ETLAGUNDEA
12:00 ETAN
LEZAMAKO
FRONTOTAN

**KUKUBILT XO
TALDEA
"TXIRRIKIZ"
LANAREKIN**

AZARDAK ETLAGUNDEA
13:00 ETAN
LEZAMAKO
FRONTOTAN

Berbalagunekin
lana



- EUBKAL JOLABAKI:
Buku tina, asku inbarketa,
boto-jakoa, nirekin dantza...
- HITZARAKA JOLASA



AZARDAK ETLAGUNDEA

19:00 ETAN
LEZAMAKO
FRONTOTAN

**GOI MAILAKO
BERTSO SAIOA:**

Alejandro Gualter, Claudio Gualter,
Blasfemio Antzara eta
Jon Larra,
Maitortzaileak:
Jesús Elizagutierrez

AZARDAK ETLAGUNDEA
20:15 ETAN AURREA
FRONTOTAN AURREAN HASIETA



"TABERNA BILTARIA" TALDEA

AZARDAK ETLAGUNDEA

**TXAN
MAGOA**

1. LEZAMAKO
FRONTOTAN
10:00 ETAN

**BEGOGA
12:00 ETAN**

AZARDAK ETLAGUNDEA

**MENTU
RIDIOLU
ANTZERKIA**

1. LEZAMAKO
FRONTOTAN
10:00 ETAN

**BEGOGA
12:00 ETAN**



AZARDAK ETLAGUNDEA
10:00 ETAN
BEGOGA
12:00 ETAN

1. LEZAMAKO
FRONTOTAN
10:00 ETAN

**BEGOGA
12:00 ETAN**





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Zalao Jaka, Joseba Butron, Sondika-Goiri argazki taldea, Bestorrene, Indra Murugarren, Sabin Arana, Gotzon Barandiaran, Jon Goikouria, Maitane Urrutikoetxea, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO LAURAKITZA
GOSTERNO VASCO

KULTURA BAILA
I. EUSKAL KULTURAREN ERKUNTZA
II. EUSKAL KULTURAREN ERKUNTZA



diruz lagundutako aldizkaria



12 Izarren distira! gala

14 Nerea Alias

30 Txorierriko Upeltegien Alkartea

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Ogibideari eusten**
- 12 Izar distiratsuak ditugu etxean**
- 14 Gurean izan da... Nerea Alias**
- 16 Gaztea eta... Iván Pérez**
- 18 Karmele Artetxe, UEUko zuzendari berria**
- 22 Txorierri Politeknika ikastegia**
- 24 Euskararen Eguna, Lezaman**
- 26 Txorierri ezagutu... Erromeria jezarlekuan**
- 28 Txorierritarrak munduan... Bost bidaia**
- 30 Elkarteak... Txorierriko Upeltegien alkartea**
- 32 Osasuna... Jarrera eta lana, bateraezinak?**
- 34 Aikorrizketan... Beroa daukat**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

- PAZELA ALBA JERONIMO - OLIVERIANO IAT - KATIL IPIRI IAT - MARCELO JULIANA - PUBLIKAZIARI BERNARDIA -

TIPS TRANSMISION
Tren-Lagunak Ltd. J.P. H. A. P. A.
Tel: 944-525-000
Fax: 944-525-000
www.tips-ai.com

ETXERAINO



944-525-000

DONOSTIA - IBAO - ANDAIA - IRIKI - ZABALDIA

www.aikor.com



ZALOA JAKA
(Kazetaria)

Benedikto XVIa Bartzelona aldera hurreratu jaku oraintsu. Hain da eskandaluzkoa bere bidaietan agertzen dauan oparotasun eta ugaritasuna, gu mundutarron bizimodutik oso urrin dagoala. Holan da bai. Egungo gizarteak ez dau ezelango nagusikeria eta botere erakustaldirik begi onez ikusten. Boterea, gehiegikeria, pederastia eskandaluak eta emakumearen bazterkeria izan leitekez eleiza eta gizartearen arteko aldentzearen arrazoi nagusiak, batek daki.

Emakumea eta bere irudia, adibidez. Atzo goizera arte, beti izan da etxeakoan-

drea, emakumea, eleizak bete izan ditua-na. Gaur egun, oster, erlijio kontuetatik guztiz aldendu da. Eta ez da gitxiagorako be, eleiza hierarkiak emakumearen irudia gitxietsi egin dau-eta. Emakumeak abade izatea delitu gori legez ikusten dau Aita Santuak, pederastiaren parekagarri, antza. Emakumearen bazterkeria horri gainera, azkenaldion, eleizaren barruan izan diran adin txikikoenganako sexu gehiegikeriak batzen jakoz, eta, horrek be, ez dau bape lagundu eleizaren ospe onean.

Ez ikusiarena egin, eta, gizarteak gaur egun dauan laikotasun gogotsuari egokitu beharrean, Benedikto XVIaren erantzuna, amorrutako klerikalismo garratza izan da, agintari politikoak buruzagi erlijioso nagusiaren aurrean belaunikatuta ikustea gurako leuken klerikalismo zaharkitua. Boterearen kontzeptuaz gabilz orain. Ebangelizazioa boterearen bitartez egiten da, botere politiko eta ekonomikoagaz alkarlanean. Emoten dau eleiza arduradunek atsekabez hartu dabela euren botere galera. Ondorioz, elizkoien diskur-

tsoa fundamentalistagoa bihurtu da. Bertan dago, beharbada, gizarte modernoaren izaerea ulertzeko eleizak dauan gaitasun eza. Boterea eta handikeria. Bartzelonan izan dan erakustaldia, aspaldian ez genduan inongo printze edo printzesa aurrean ikusten. Eleizaren goi-agintaria sekulako botere politiko eta mediatikoz inguraturik hurreratu da, uritarrei errieta eginaz gainera, uritarrek gizartearen normalidadean bizi eta disfrutatzen dabela-ko. Zer esanik ez, handikeria hori, Jesusen bizi-tza izan zanetik nahikoa urrin dago.

Ez naz ni inor eleizaren etorkizunari buruzko iragarpen zerutiarrak egiteko. Bada, orduan, jainkotiar Probidentziak gida bei eleizaren ibilbide menderatuezinaren norabidea. Sinisle izan zein ez izan, ziur danok zatoziela bat, eleizak, asmatu gura badau behintzat, aurrekaririk bako itxura aldaketa emon beharko daua norabide egokian. Erdi Aroko eskema horreetatik aldentzea besterik ez dau, nahi-taez. Ostantzean, bere biziraupenak jai dau.

Labeldunak

Bada, gero! Igual berrogei urte hemen bizitzen eta batzuek ez dute sekulan esan ez "Egun on", ez "Eskerrik asko", ez euskarazko barbarik! "Agur", gehienez! Arduratzekoa. Batzuek ez dute euskararik egundo ikasiko (adina, giroa, motibazio falta, zailtasuna...), eta normaltzat hartzen da. Baina aldea badago: hizkuntza ikasi ez, baina berba edo esaldi labur batzuk sikiera. Jende triste!

Ostera, beste aldera joanda, "berezko" euskaldunen artean ere bada zer esanik. Ia ahaleginik egin behar izan barik,

berez antzean etorri zaie euskara: familia, eskola, txikitatik... Eta horiek berba egin bai, baina igual berrogei urtean ez dute sekula erosi euskarazko aldizkari bat edo egunkari bat. Zertako! Debalde badator, bueno. Baina, erosi, euskara kontsumitu? Askok, gainera, euskarari esker daukate lanbidea eta soldata. Triste.

Baina bada hirugarren multzo bat, txalogarria. Igual euskara kostata ikasi eta, gainera, euskararen kontsumitzaile direnak: euskal prentsa erosi -ez betiko peroidikua-, irakurri, oparitu... Pertsona kontse-



JOSEBA BUTRON
(Irakaslea)

kuenteak eta konprometituak, nortasunekoak: euskaldun labeldunak!



Gabonek ez gaiezan jan


Gurpide Larrabetzuko alkarteak kontsumo jardunaldiak antolatu ditu abendurako. Ekitaldiak abenduaren 13tik 19ra bitartean egingo ditue "Gabonek ez gaiezana" goiburupean. Truke Azokea egingo da Hori Bai gaztetxean aste osoan. Ekitaldiak helburu hau dau: sare handi bat osatzea, herriko jenteak erabiltzen ez dituan edozein muetatako gauzak alkarri trukatzeko. Abenduaren 15ean, eguaztenez, banka etikoaren inguruko berbaldia egingo dabe Anguleri kultura etxean. Berbaldia arrastiko 7:30ean izango da. Hurrengo egunean, abenduaren

16an, deshazkundera izango dabe hizpide; Anguleri kultura etxean gai horren inguruko bideo-foruma eta mahai-ingurua egingo ditue arrastiko 7:30ean.

Beste alde batetik, zapatu arrastrian Gabonetako menua prestatuko dabe Elexaldeko txokoan; menua prestatu eta gero ha dastatu be bai. Menua prestatetako, sasoiko eta Larrabetzuko lehengaiak erabiliko ditue. Horrezaz ganera, ekitaldian baserritar batzuek hartuko dabe parte, eta antxina Gabonak zelan ospatzen ziran kontauko deutsee txokoan bilzten diranej.



Argazkia: Lurdes Etxebarria



Zuzenketa

AIKOR! aldizkariaren aurreko alean, 10. orrialdean, Polizia Nazionalak Endika Perez larrabetzuarra atxilotu zuela argitaratu genuen. Izan ere, informazio hori izan genuen, alea itxi genuenean. Baina aldizkaria inprentan zegoenean jakin genuen informazioa ez zela zuzena. Larrabetzutik esan zigutenez, poliziak gaztearen etxea eta Hori Bai gazetxea miatu zituen, baina ez zuten gaztea atxilotzea lortu. Beste alde batetik, poliziak Xabi Vidaurre ere atxilotu zuela esan genuen informazio horretan. Azaldu digutenez, Vidaurrek Larrabetzun egiten du lan, baina ez da larrabetzuarra, galdakoztarra baizik. Poliziak azken herri horretan atxilotu zuen Vidaurre.

[illegible]

On egin 4. edizioa

Markegiak, markegiak, markegiak,
gure markegiak, gure markegiak, gure markegiak,
gure markegiak, gure markegiak, gure markegiak,
gure markegiak, gure markegiak, gure markegiak.

Markegiak markegiak markegiak

Markegiak markegiak markegiak
94 455 63 94

Markegiak markegiak markegiak





**LITHUANIAN
SOCIETY
OF LIBRARIANS**

ARTS EDERSAK BSKULANAK EA

JOHNS MARSH TAMES JEMSON

Doktryna katedronu, planifikacija
programu, bibliotekos, finansu,
organizacijos ir informacijos

Baltijos Vandenys, 2. Tira / Tirios / 24. 1993. Nr. 77
(KLAIPEDA UNIVERSITETAS)



Liburu azokea, Lezaman

Lezamako liburutegiak urteak daroaz Liburu azokea antolatzen. Handik azaldu deuskuenez, urtero material asko dabe sobran, besteak beste, liburu barriak erosi dabezalako, horreetako batzuk errepikauta dagozalako edo zahar lotu diralako. Material hori salgai jarten dabe, eta herritarrei liburuak-eta oso prezio merkean erosteko aukera emoten deutsee. Arrakasta handia dauan ekimena da, izan be, eleberriak, entziklopediak, dvdak, ipuinak... etxera euro baten edo biren truke eroan daikiez liburutegiraino hurbiltzen diranek. Liburu Azokea abenduaren 13tik 17ra bitartean, arratsaldez, egongo da zabalik aurton. Gainera, azokearen barruan ekitaldi bi egingo dira umeengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko. Horrela, bada, Lur Korta ipuin kontalaria liburutegian egongo da abenduaren 14an, arratsaldeko 6:30ean, eta Antton Irusta idazleak saioa eskainiko dau abenduaren 15ean, arratsaldeko 6etan.

Baserri Antzokiak arrakasta handia du


TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak Baserri Antzokia proiektuaren berri eman zuen duela hilabete batzuk. Baserri Antzokiak Txorierriko eta inguruko euskaltzaleen topagunea izatea du helburu, eta euskara eta euskal kultura edukiko ditu ardatz nagusitzat. TOTONeko arduradunak, Mankomunitateak eta euskara elkarteak herriz herri dabiltza proiektua aurkeztzen eta dagoeneko informazio-bilera bi egin dituzte, bata Zamudion eta bestea, Lezaman. Bilerak oso arrakastatsuak izan dira eta bakoitzean 60 lagun inguruk hartu dute parte. Horien artean kultura eta kirol taldeetako partaideak, dendariak, herritarrek eta udal ordezkariak izan dira. Besteak beste, proiektuaren ildo nagusiak eta Baserri Antzokiaren bazkidea izateak dakartzan abantailak azaldu zaizkie bileretara hurbildu direnei. Proiektuak ikusmin handia sortu du herritarrengan eta horiek ere hainbat galdera helarazi dizkiete sustatzaileei.

Baserri Antzokiaren hurrengo aurkezpeneak Sondikan eta Derion izango dira. Proiektua azaroaren 24an, iluntzeko 7:30ean, aurkeztuko dute Sondikako Kultura Etxean.

Derioztarrek abenduaren 25ean eta 26an edukiko dute hitzordua. Lehenengo bilera erdaldunei egongo da zuzenduta,

izan ere, euskara ez dakitenak gure hizkuntzara eta euskal kulturara hurbiltzea ere bada Baserri Antzokiaren helburuetariko bat. Hori iluntzeko 8etan izango da Bestorrene txokoan. Eta bigarren bilera, hurrengo egunean, iluntzeko 7etan egingo dute Larrabarri baserrian.

Larrabetzun, abenduaren 29an egingo da aurkezpene. Hori iluntzeko 7etan izango da Anguleri kultura etxean. Baserri Antzokiaren aurkezpene Loion ere egingo da eta data laster jakinaraziko da.




**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**


Arlenga nuzoa, 119
Tfnoa: 94 412 11 58
ZAMUDIO



LARRADETZU
Baserri Antzokia
LARRADETZU Baserri Antzokia
(BILBAO)



MUNCHA
LARRADETZU Baserri Antzokia
LARRADETZU Baserri Antzokia
LARRADETZU Baserri Antzokia



GAZTELEKU TABERNA
LARRADETZU Baserri Antzokia
LARRADETZU Baserri Antzokia



Zorrizketan elkartea saritu dute

Deia egunkariak Txorierrri, Uribe eta Mungialdea eskualdeei dagokien Hemendik sariak banatu ditu. Ekitaldia Sondikako Kultura Etxean egin zuten azaroaren 18an. Sariak zazpi kategoriatan eman ziren eta horietako batzuk Txorierrriko elkaratek jaso zituzten. Horrela, bada, Kultura saria Zorrizketan Lezamako euskara elkarateari eman zioten. "Hamaika urte daramatragu Lezaman euskara eta euskal kulturaren alde lan egiten eta hau bezalako saria jasotzea poztekoa da. Hala ere, ez dugu ahaztu nahi Txorierrin beste hiru euskara elkarate daudela. Elkarateok eta

horiek egiten duten lana gogoan ditugu. Saria guztiontzat da", esan zigun Iñaki Lekerika Zorrizketan elkaratearen presidentea. Zorrizketan elkaratekoek Goronda Gane Sondikako herri ikastetxearekin partekatu zuten Kultura saria.

Beste alde batetik, Gure etxea Larra-betzuko elkarateak eta Gure señeak Derioko elkarateak Gizarte ekintza saria jaso zuten. Azkenik, Turismo saria Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokari eman zioten. Sariok txorierritarrok eskualde eta herritarren alde egiten duten ahalgina aintzat hartzea dute helburu.

"Olentzero-Gabonak" lehiaketa, Zamudion

Lagatzu Zamudioko euskera alkarateak "Olentzero-Gabonak" lehiaketa antolatu dau. Lehiaketa umeei dago zuzenduta, eta bertan Zamudiokoek baino ezin izango dabe parte hartu. Parte-hartzaileek Olentzero edo Gabonen gaineko lanak aurkezteko aukerea eukiko dabe, eta, horretarako, gurago daben formatua aukeratu ahalgo dabe: ipuina, bertsoa, idazlana...

Hiru kategoria osatuko dira: A kategoria, Lehen Hezkuntzako bigarren mailakoentzat; B kategoria, LHko hirugarren eta laugarren mailakoentzat; eta C kategoria, LHko bosgarren eta seigarren mailakoentzat. A kategoriako lanek orrialde bateko luzera eukiko dabe; eta B eta C kategorietakoek, orrialde batetik gorako luzera. Kategoria bakoitzeko hiru sari emongo dira.

Irabazleek material didaktikoa erosteko diru-txartelak jasoko dabez sarizat. Idazlanak Lagatzuko postontzian (Aresti, 2 behe) itxi ahalgo dira abenduaren 17ra arte. Idazlanak gutun-azal handi batean aurkeztuko dira eta horren barruan beste gutun-azal txikiago bat sartuko da. Gutun-azal txikiaren barrukaldean parte-hartzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia jarriko dira, eta kanpoaldean kategoria idatziko da. Sariak abenduaren 30ean, iluntzeko 8etan, banatuko dira Zamudioko kiroldegian. Tor magoak saioa eskainiko dau egun horretan.

ASESORIA
Luz. Fernandez Aguirre, S.L.

Merke Bidera, 1
Tfn: 94 472 22 14 - fax: 94 471 01 11
48900 SOTEÑA (Bizkaia)

GAMINIZ
JATETXEA

944 44 34 722
www.gaminiz-jatetxea.com

Barrio de San Juan, 10
48900 SOTEÑA (Bizkaia)

www.gaminiz.com

ART-LEA
ART-LEA

www.art-lea.com

AM
AM

www.am.com

Horrela, bada, heziketa lehiaketa egingo da goizean zein arrastian, animalien heziketa-zentro baten eskutik. Edertasun lehiaketa ere egingo da arrastian, eta arrazako txakurrek eta mestizoek hartu ahal izango dute parte bertan. Berritasun moduan, handler arrazako txakurren lehiaketa egongo da aurtien. Beste alde batetik, aipatzekoa da argazki lehiaketa ere egingo dela azokaren egitarauaren barruan. Azken lehiaketa honetan kategoria bi bereiziko dira: narrastiak eta katuak. Izena emateko epea zabalik dago eta Mascotas Maider dendan edo azokan bertan eman daiteke izena; hala ere, katuen argazki lehiaketan izena emateko epea abenduaren 10ean amaituko da. Capegabi animaliak babesteko elkarteak ere egongo da azokan.

Apezetxeak "Argazkilari gailena" saria jaso du

FEPEI argazkigintzan eta irudian diharduten profesionalen Espainiako federazioa da. Azaroan argazkien kalifikaziolehiaketa egin zuten zortzigarren aldiz, Granadan, eta han "Argazkilari gailena" saria eman zuten. Saria Joseba Apezetxea Zamudioko argazkilariak jaso zuen. Argazkilarien federazioak Apezetxearen lanen kreatibitatea eta kalitate teknikoa saritu ditu, eta argazkilariari eskertu dio lanbideari egiten dion ekarpena. "Oso pozik nago. Egunero gogor egin behar da lan, mugak gainditu eta helburuak lor-

tzeko. Eta sari honek hainbat urtean egindako ahalegina eta lana hartzen ditu aintzat”.

Apezetxearen argazkiak hainbat aldiz izan dira sarituak eta horietako bi FEFPi-ren Ohorezko Bilduman sartu dituzte. 2005. urtetik 2009. urtera bitartean zamudioztarra lau aldiz proposatu dute Zaragoza, Valencia eta Asturiaseko elkar- teek antolatutako lehiaketetarako. Ape- zetxea "Argazkilari gailena" saria jaso- tzen duen hirugarren argazkilari bizkaita- rra da.

[illegible]

HORTZ - KLINIKA

Josep Aurmendí Garai

TELÈFONOS: 923. 1. 17. 4
22. 49. 2

Endreueren: 944. 933. 700

Inprimategia : karmelojantz : kolorezko argiketak : scanner & tarteak lantzeko : errepagratia



Zamudioak
Plaza 3 la dupleta, 1.º eta
1.º eta 2.º et. 48100
L. Zamudio (Bizkaia) E.

SARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



Kurutze dantza taldekoak argazki bila dabilta

Kurutze Lezamako dantza taldea 1982. urte inguruan sortu zen. Ibilbide luze honetan asko eta asko dira taldeak eskaini dituen dantza agerraldiak, egin dituen probasaiak, jaiak... eta handik pasatu diren partaideak ere asko izan dira.

Oraingo partaideek hobeto ezagutu nahi dute taldearen historia, eta argazki bila dabilta horretarako. "Baten batek dantza taldeari buruzko informaziorik edo argazkirik izanez gero, eskertu egingo genioke gurekin partekatzen baditu", aipatu dute. Hiru bide daude dantza talde-

koei informazioa edo argazkiak helarazteko: kdtlezama@hotmail.com helbide elektronikoaren bidez, Uribarri Topalekuan (astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan, 18:00etatik 19:00etara) edo Lezamako liburutegian. Bestalde, Kurutze dantza taldea osatu baino lehen bazegoen beste dantza talde bat herrian: Odol gaztea. "Taldea horren argazkiak ere batu nahiko genituzke". Argazkiekin batera argazkiak zein urtetakoak diren azaltzeko eskatu dute Kurutze taldekoek. Argazkiok ahalik eta lasterren itzuliko dizkiete jabeek.

Kalean da Korrikaren materiala

Korrika 17. aldiz egingo da datorren urtean eta horren haritik AEK-k "Korrika laguntzailea" kanpaina aurkeztu dau. Korrika 1980an sortu zan helburu bigaz: alde batetik, euskerearen aldeko manifestaldi erraldoia egitea; eta, bestetik, AEKrentzat diru kopuru handia ahalik eta epe laburrenean lortzea. Halan, jaialdi bakotxean batutako diruari esker AEK-k hainbat egitasmo jarri ditu martxan, baina oraindino be ezinbestekoa dabe herritarren ekarpena, diru-laguntza ofizialak murriztak izaten jarraitzen dabelako. "Korrika laguntzeko modu asko dago, baina guk bi nabarmendu gura doguz bereziki: Korrika laguntzailea eta Korrika materiala", esan eban Edurne Brouardek.


Laguntzaile egiten diran guztiei Korrika Laguntzaile pina eta Euskal Herriko 100 komertzio baino gehiagotan merkeago erosteko bonoa emongo deusez. "Gure esker ona adierazteko modu xume bat baino ez da. Beneren garrantzitsua dana hau da: urte birik behin, 12 euroen truke, Korrika laguntzailea izango zara eta horrek euskerearen aldeko helburuak lortzen lagunduko deusku guztioi". Ohi dauen legez, AEK-k erropea eta beste-lako osagarriak sortu ditu Korrikaren 17. ediziorako. Durangoko Azokan dendea ipiniko dau eta materiala Euskal Herriko jaietan eta azoketan be salduko dau. Horrezaz gainera, erropea eta osagarriak Euskal Herriko hainbat dendatan eta AEKren euskaltegietan be egongo dira salgai.



Sustraiakaz izan dogu hitzordua



a: Jon Goikouria




Euri-zaparrada handiek Zamudioko Azokea hondatu eben igaz, eta aurton be euria lagun euki genduan egun osoan zehar. Halanda be, antolatzaileek aurea hartu eutsien eguraldi txarrari eta karpa erraldi bat ipini eben azoka-eremuan. Karpak eurtik eta haizetik babestu zituan Zamudiora etorri ziran milaka lagunak. Izan be, azokea 25. aldiz egin da aurton, eta, aurreko edizinoetan moduan, erabat arrakastatsua izan da.

Ekitaldia erakusleiko ederra da neka-zarritza arloko produktuak jente-aurrean

azaltzeko. Edizino honetan 90 ekoizle inguruk hartu eben parte. Besteak beste, produktu honeek izan ziran erakusgai eta salgai azokan: barazkiak, txakolina, gaztaia, pastelak, lukainak... Gainera, Bizkai-ko Limusin abelgorrien txapelketea egin zen azokearen egitarauaren barruan, eta han behirik onena, zezenik onena eta ganadutegirik onena aukeratu zituen.

Sondikoztarrek be hitzordua euki da-be azaroan baserri munduagaz. Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Azokeak 14. edizinoa bete dau aurton, eta bertan 60 ekoizle eta artisau batu ziran. Era berean, ganadu erakusketea egin zan.

Euria Sondikan be lagun euki eben, baina horrek ez eban eguna iluntzea lortu. Euritakoa eskuan ebela, ehunka sondikoztar animau ziran azokaraino hurbiltzen eta kanpotik etorri ziranak be asko izan ziran. Kolorea nagusi izan zen postuetan, eta, beste batzuen artean, barazkiak, txakolina, txarkuteriako produktuak eta ezta eskaini jakozan publikoari. Idiek, behiek, oilaskoek, ardiek... helduei zein txikiei gozarazo eutseen, eta azken horrek hainbat tailerretan parte hartzeko aukerea euki eben: beira, narrua edo buzina, esate baterako. Artisauek azokara ekarritako bitxiak, zeramika-beharrek eta grabauek be ikusmin handia sortu eben publikoaren artean.



BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. 102.6 MHz



www.bizkaiairratiak.com



Ogibideari eusten


Esku sendoak ditu argazkian agertzen dan gizonak; denporak eta beharrak gogortutako eskuak dira. Antzinako ogibidean dihardu, trebetasuna eta arreta eskatzen dituen ogibide batean. Tradizioaren ondarea da.

Argazkia: Jon Goikouria, Sondika-Goiri argazki taldea





Arrate Gaztelu eta Kattalin Barcena, 3. saria



Devil sticks

Izar distiratsuak, Txorierriko zeruan

Eserleku librerik ez zen egon azaroaren 30ean Sondikako Kultura Etxean; eta kanpoan geratu ziren hainbat eta hainbat lagun Izan ere, Izarren Distira! galak hain ikusmin handia sortu zuen ezen sarrerak bost minutuan agortu baitziren. Publikoak ikuskizunaz gozatu nahi zuen, eta gure izar gazteek ez zuten huts egin. Euren talentua nabarmendu zen eszenatoki gainean.

a: Indra Murugarren

Urduritasuna nagusi zen frisoen artean. Koreografia azken aldiz entseatu, abestien hitzak gogoratu, lasaitzen saiatu... Batzuentzat lehenengo aldia zen eszenatoki batera igotzen zirena; beste batzuek bazuten eskarmentua halako zereginetan. Batzuek gogotik zuten presatuta ikuskizuna; beste batzuek oso entsegu gutxi eginda zituztela aitortu zuten. Nolanahi ere, jendaurrean azaltzeko momentua ailegatu zen, eta gure gazteek talentu faltarik ez dutela erakutsi ziguten.

Gala txukuna izan zen, mimoz zaindua. Nerea Alias ETBko aurkezlea zeremonia-maisu ibili zen, eta publikoa berega-

“Gure gazteek talentu faltarik ez dutela erakutsi zuten eszenatoki gainean”

natzen jakin zuen. Ikuskizunean zortzi finalistak hartu zuten parte: batzuk barkarka aritu ziren; eta beste batzuk, taldeka. Dantzariak, abeslariak, malabaristak... antzezpen zabala egon zen eszenatokian, eta parte-hartzaile guztiek ahots bete hortz utzi zuten publikoa.

Epaimahaia hauek osatu zuten: Andrea Arrizabalaga Teleberriko aurkezlea,

Lander Otaola Kerman mintzalagun bila saioaren aktorea eta Ortzi Garitano Derioko bertsolaria. Erabakia hartzea ez zen batere erraza, baina epaimahaiak azkenean bere iritzia ezagutzea eman zuen. Parte-hartzaile guztiak, urduri baino urduria-go. Kattalin Barcena eta Arrate Gaztelu lar-rabetzuarrak hirugarren gelditu ziren. Neskek ahotz goxo-goxoa dute, eta publikoari Hesian taldearen *Behar zaitut* abestia eskaini zioten. Ikusleren bat baino gehiagok oilo-ipurdia jarri zitziola esan zuen. Diskoak eta liburuak erosteko bonoa eman zieten saritzat.

Hakima Velezek bigarren postua lortu zuen. Lezamar honek erritmoa zainetan daramala erakutsi zuen, eta edozein musika mota dantzatzeko trebea dela. Beno,




trebea esatea gutxi da, neska dantzari aparta delako. Hakimak lagunekin partekatzeko saria jaso zuen: laser partidak eta afaria.

Ilusioz eta gogoz

Eta irabazlearen izena ezagutzeko unea ailegatu zen. Publikoak arreta handiz entzun zituen aurkezlearen hitzak, eta batzuk irabazlearen izena aurretik esatera arriskatu ziren. Eta bete-betean asmatu zuten. Iván Pérez derioztarrak publikoa zein epaimahaia liluratuta utzi zituen bere ikuskizunarekin. Gazteak *beat box*, ba-karrizketa eta umorea uztartu zituen saio berean. Ivanek multiabentura ekintzak egiteko bonoa edo ikas bidaiarako diru-laguntza jaso zuen saritzat.

Oso gala ederra izan zen, eta Astrapala Lezamako musika taldeak emanaldia eskaini zuen. Hauek ere zoragarriak. Galaren bideoa www.izarrendistira.com webgunean jarri dute ikusgai.



Hakima Velez, 2. saria

Izarren distira! talentu lehiaketa Txorierriko Mankomunitateak TOPAGU-NEA Euskal Herriko Euskara Elkartearen Federazioarekin batera antolatutako ekimena da. Ekimenak hainbat helburu ditu, hala nola, gazteen sormena piztea, euren arteko harremanak sendotzea eta euren parte-hartzea bultzatzea. Hala ere, euskara eta aisialdia uztartzea ekimenaren helburu nagusia da; hau da, gazteek aisialdia ere euskaraz goza daitekeela ikus dezaten. Txorierriko gazteek ilusioz eta gogoz hartu dute lehiaketaren lehenengo edizioa eta casting-etara 21 parte-hartzaile aurkeztu dira.

Oso ekimen arrakastatsua izan da, bai parte-hartzaileen kopuru aldetik, bai horiek eskainitako saioen kalitate aldetik eta bai publiko aldetik. Antolatzaileak pozik azaldu dira lortutako emaitzarekin, eta publikoak datorren urtean ere izar bila jarraitzeko eskatu die.



FLORRIETA
INSTALACIONES

Proy. y m. de interiores y exteriores

Edificio Indalecio, 191 Indalecio (Pamplona) 48005
941 100000 ext. 200
al.fern@indalecio.com - al.fern@indalecio.com

 **Ferma de la Tierra**
ETCOPI

Elaboración artesanal, ecológica, al tiempo
que 100% vegetal y natural
Teléfono: 948 11 70 70 - 948 11 70 70

MARMOLAS INIZIA
GOYO

Granito de calidad para todos los usos

 **Establecimiento: 2001, 2010 y 2011**
2010 Premio Marmol
C/ GARCÍA DEL PUERTO, 100. 48940 LEZAMA



t: Gaizka Eguskiza / a: Indra Murugarren

Zelan pasatu zenuen Sondikako galan? Gazteak eta ikuskizuna uztartu ziren bertan. Gustura, ezta?

Oso ondo pasatu nuen. Hasiera batean, entseguetan-eta, urduritasun handia egon zen, baina azkenean gala polita ateratu zen, eta guztiok gustura ibili ginen: parte-hartzaileak, antolatzaileak...

Zein izan zen gehien gustatu zitzazun artista? Irabazi zuena edo beste bat?

Zaila da bat aukeratzea, bai Sondikan bai beste hainbat lekutan egin ditugun galetan. Aurkezten direnen maila oso altua da, eta askotan harrituta gelditzen zara kategoria guztietan: dantzan, saio librean... Gazteek serio hartzen dute gala, gogor entseatu, eta emaitzak onak dira. Askotan esaten da gazteek ez dutela ekimenik, baina hori ez da egia.

Artisten harrobi polita dugu Euskal Herrian, ezta?

Nik uste dut baietz. Pena da hori erakusteko aukera handiegirik ez diegula ematen. Baina "Izarren distira!" galak horretarako daude.

Gala aurkeztea eta programak telebistan aurkeztea gauza bera da?

"Teatreroa naiz"

NEREA ALIAS | ETB-1 telebista kateko aurkezlea

ETBko gazteentzako saioak aurkezteagatik da ezaguna Nerea Alias (1984) anoetarra. Telebistan neska hurbila eta jatorra ematen du, eta horrela agertu da Aikor! aldizkariaren deiari erantzun dionean. Nerea Txorierrira etorri zen "Izarren distira!" gala aurkeztera.

Bietan aritzen naiz gazteekin, baina ez dute zerikusi handirik. Galetan gazteekin dugun harremana gertuagoa, beroagoa da. Telebistan, aldiz, ez dago denborarik gazteekin egoteko; dena doa azkar telebistan.

Normalean euskaraz egiten duzu lan. Gusturago euskaraz gaztelaniaz baino?

Nire ama hizkuntza euskara da, eta naturaltasun handiagoa daukat euskaraz gaztelaniaz baino, errazagoa da niretzat. Horrek ez du esan nahi hizkuntza horietako bat nahiago dudunik. Normalean eus-

karaz egiten dut lan, baina gaztelaniaz egin beharko banu, arazorik gabe hartuko nuke ohitura.

Telebistan aurkezle eta aktore ibili zara (Balbemendi telesaioan). Zer nahiago duzu?

Inoiz pentsatu dut aktorea izatea, baina ez dut serio hartzen, agian lan-eskaintza seriorik ez delako inoiz suertatu. Aurkezle nabil, eta, gainera, gustura. Lanbide zaila da, eta momentuz nahikoa dut. Etorrizunari begira, beharbada zerbait ezberdina egitea pentsatuko dut, gauza berriak egiteagatik eta gustatzen zaidalako. Izan

*"Askotan harritzen
gaitu galetako parte-
hartaile gazteek
erakutsitako mailak"*

*"Artisten harrobi ederra
dugu Euskal Herrian,
baina oso aukera gutxi
dute hori erakusteko"*

*"Ez da erraza, baina
oro har ondo daramat
ospea, patxadaz
hartzen dudalako"*

ere, saltsa guztietan sartzea gustatzen zait. Aktorea izatea etorkizunerako dudan planetako bat da.

**Gazteentzako eskaintza txikia da-
go gaur egungo telebistan oro har, ez-
ta? Zer dela-eta?**

Oso galdera ona da eta guztiok egi-
ten dugu. Bai, eskaintza txikia da, baina
ez dakit zergatik. Batez ere azken bolada
honetan saioak bertan behera gelditu

dira, eta eskaintza are eskasagoa da. Etor-
kizunari begira espero dut joera hori
aldatzea.

**Telebistan, gehienetan gazteei lo-
tutako programetan aritu zara. Beste
saio mota bat egitea gustatuko litzai-
zuke?**

Bai, baina gazteekin gustura nabil,
eta oraingoz ez diot nire buruari horrela-
korik planteatzen. Lehen gazte-gazteekin
egiten nituen saioak, orain publikoa na-
gusiagoa da, nerabeak, eta aldaketa la-
saia izan da. Dena dela, erronka berrieta-
ra zabalik nago.

**Oso alaia eta berritsua zaren irudia
duzu telebistan. Etxean ere horrelakoa
zara?**


Tira, telebistan agertzen den pertso-
naiak badu zerbait nirea dena, hau da,
neurri batean, ni ere banaiz horrelakoa.
Hala ere, ezin dut egun osoa horrela
pasatu. Nik ere momentu txarrak ditut,
eta ezin naiz beti irriabartsu eta txantxe-
tan ibili. Pertsona normala naiz, baina bai,
teatreroa naizela esango nuke.

**Facebook sarean "Si nos juntamos
100.000 Nerea Alias se despedota" tal-
dea osatu dute. Zelan daroazu ospea
eta hainbat lagunentzat neska erakar-
garria izatea?**

Ondo eta gaizki. Zazpi urte daramat
telebistan eta ohitura hartu dut. Hala ere,
ez da batere erraza, eta hasiera batean
kostatu zitzaidan. Batzuetan oraindik ere
ez da eroso, baina ikasi behar da horre-
kin bizi izaten. Oro har ondo daramat os-
pea, patxadaz hartzen dudalako.

**Uste duzu 100.000 lagun bilduko
direla Facebook sareko talde horre-
tan?**

Taldearena gezurra da, ez naiz biluz-
tuko, eta ez dakit nork bultzatu duen.
Pixka bat beldur diot egoerari: ea azkene-
an guztiak biltzen diren eta etortzen zaiz-
kidan kontu eske (kar, kar). Barregarria da
norbaitek zure irudiak ez dakit zer lortze-
ko balio duela pentsatzea. Baina argi utzi
nahi dut gezurra dela, edo behintzat niri
ez dit inork ezer proposatu.



ADJUNTOS
Edurne Milla, 2
48100 Leizor
Tel. 944 995 00 44
leizor@guernika.com

LUIS BORDA
Avenida Garmendia, 2
48003 Pasaia
Tel. 944 424 77 00
leizor@guernika.com

JOSE MANUEL
Calle de la Heredia, 20
48003 Pasaia
Tel. 944 499 20 24
leizor@guernika.com

Jose JOSEMANUEL
colaborador de guernika


GUERNIKA

TALDEA

GURENA

ASISTENTE DE TENDIDO Y LIMPIEZA

ADJUNTOS DE GUERNIKA
-TIENDAS Y PUNTOS DE VENTA



"Argi dut eszenatokitako jaioa naizela"

t: Itxaso Marina / a: Indra Murugarren



IVÁN PÉREZ | Izarren distira! Lehiaketaren irabazlea

Lehiaketan parte hartzeak hasiera batean lotsatu egingen zuela aitortu digu. Baina bata eta besteak animatu, eta castingetara aurkeztu zen azkenean. Hamazortzi urteko derioztarrak aho bete hortz utzi zuen Izarren distira! Lehiaketaren galan batu zen publikoa.

Ba, eskerrak animatu zinela!

Lehiaketaren berri anaiaren eta Tuentiren bidez izan nuen. Ez nuen bertan parte hartu nahi, gala etxe ondoan, Sondi-kan, izango zelako eta ziur nintzelako askok ezagutuko nindutela. Baina hainbat aldiz entzun nuen aurkeztu behar nintzela, ezen azkenean egin nuen. Ez nien herriko lagunei esan; klasekoei besterik ez.

Zein ikuskizun aurkeztu zenuen?

Bakarriketa prestatu eta hori *beat box* erakustaldi batekin uztartu nuen. Hau da, argumentu bat asmatu eta hori ahoz egingandako soinuekin apaindu nuen: gitarra-aren soinuekin, bateriarenekin, dj baten musikarekin... Sabina, Sinatra eta Eros Ramazzotti ere antzeratu nituen.

Beat box-a ederto menperatzen duzula ikusteko aukera izan genuen. Noiztik praktikatzen duzu?

Orain dela urte bi telebistan ikusi nuen mutil bat *beat box*-a egiten zebilela eta bitxia iruditu zitzaidan. Unibertsitateko ikaskide batek badaki egiten eta berekin hasi nintzen praktikatzen. Egia esan, ez nabil egun osoan praktikatzen, baina ahal dudan guztietan aprobetxatzen dut: lagunaren arteko afarietan, parrandetan, etxean... Eta castingetarako eta galarako ere ez dut asko entseatu. Ez zait saioak oso-osorik prestatzea gustatzen; apur bat inprobisatzea nahiago dut. Bestela, berez-kotasuna galtzen da.

Espero zenuen irabaztea?

Halako ekitaldi batean aurkeztu zaren, irabazteko ilusioa duzu beti. Gai nontzeko parte-hartzaileek irabaziko nuela esaten zidaten, baina inoiz ez dakizu... Gainera, sariak berdin zidan. Ni lehiaketara aurkeztu nintzen eszenatokia gustatzen zaidalako eta nire burua ezagutzera em-

Boduzue arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Arazorik duzun lekura iristeko?

Euzko Legebiltzaria

Plaza berria

Arazorik duzun lekura iristeko...



902 54 08 54



teko aukera ona zela uste nuelako. Pozik nago. Aurkezleak "eta irabazlea da..." esan zuenean, publikoa "Iván, Iván!" hasi zen oihukatzen. Eta hunkitu egin nintzen. "Bai, irabazlea Ivan da", amaitu zuen aurkezleak.

Lagunen ahotsik, publikoaren artean?

Ez. Herriko lagunei galaren finalista nintzela kontatu nien azkenean, baina partida zuten, eta ezin izan ziren Sondikaraino hurbildu. Klaseko lagunak, orde, etorri ziren. Hala ere, bat izan ezik, beste guztiak kalean gelditu ziren, sarrerak oso azkar agortu zirelako.

Zelan ikusi zenituen beste parte-hartzaileak?

Castingetan azkena izan nintzen saioa egiten; eta galan zortzigarrena. Horregatik ez dut gainontzeko parte-hartzaileek zuzenean ikusteko aukerarik. Beno, azken finalista biak bai ikusi nituela galan eta neska, bigarrena lotu zena, oso ona zela iruditu zitzaidan. Ondoren, gala ikusi dut telebistan eta batzuek talentu handia dutela uste dut; diabolarekin aritu zen mutila, esate baterako.

Trebetzat duzu zure burua?

Bai, argi dut eszenatokirako jaioa naitzela. Txikitatik nahi dut aktorea izan. Ondoren ateratzen zaizkidanak bakarrikzketak eta txistek kontatzea dira. Ea gala irabazi izanak ateak zabaldu eta aukerarik ekartzen didan!

Aktorea izan nahi duzu, baina publizitatea ikasten zabilta.

Amari arte dramatikoa ikasi nahi nuela esan nionean, "Madrilera zu bakar-bakarrik

"Saioetan inprobisatzea nahiago dut; bestela, berezkitasuna galtzen da"

"Publikoa 'Iván, Iván!' oihukatzen hasi zenean, hunkitu egin nintzen"

joatea, 18 urterekin? Ezta pentsatu ere!" erantzun zidan. Eta publizitatea ikasteari ekin nion, mundu horrek ere erakartzen nauelako. Dena dela, publizitate-ikasketak amaitu eta arte dramatikoa ikasteko asmoa dut. Bilbon antzerki eskola zabaltzeko asmoa dagoela entzun dut. Horrela bada, bertara joango nintzateke; osterantzean, ez nuke arazorik izango kanpora joateko.

Zer deritzozu gazteei zuzendutako halako ekitaldiak antolatzeari?

Oso ondo. Izan ere, badaude talentu handia duten gazte asko. Baina aukera askorik ez dagoenez, ezin dute hori erakutsi. Adina dela-eta, ezin izango dut datoren urteko lehiaketan parte hartu, baina Txorierriko gazteak animatuko nituzke bertan parte hartzera, oso aukera ona delako.



“UEUri lagundu nahi diot”

KARMELE ARTETXE | Udako Euskal Unibertsitateko zuzendari berria



Bizitza osoa eman du iker-tzen, baina ez zaio inporta, izugarri gustatzen zaiolako. Karmele Artetxe zamudioztarra (1976) Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari izendatu dute, baina historialariak patxadaz hartu du. Izan ere, primeran eza-gutzen du UEU, iaztik unibertsitatearen proiektuez arduratzen ibili baita.

t/a: Gaizka Eguskiza

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari izendatu zintuztenean, "erronka profesionala eta pertsonala" zela esan zenuen...

Bai, nire ikerketa gaia erakunde zientifiko euskalduna da eta UEUn egoteak ekarpena egiten dio nire ikerketari. Alde profesionala alde batera utzita, alderdi pertsonala da gehien kezkatzen nauena. Ni UEUko 10. zuzendaria banaiz. Nire aurretik egon direnek jakin dute UEU aberasten edo garai berrietara egokitzen, eta euren erabakiek erakundeari lagundu diote. Eta hori da nik egin nahi dudana, UEUri laguntzea.

Ardura handia dela ematen du...

Bai, noski. Baina aldi berean, kontuan izan behar dugu hainbat urte daramadala UEUn eta primeran ezagutzen dudala. Beraz, ez da hainbesterako. Pausuz pausu ibili naiz UEUn eta azkenean zuzendaria izateraino ailegatu naiz. Dena dela, zuzendaria izateak komunikabideetan agertu behar naizela esan nahi du; gainontze-koak ia berdin-berdin jarraituko du.

"Krisialdi ikaragarri honetan erronka handia izango da dugun egoerari eustea"



Kepa Altonaga hemengoa da eta Martin Orbek lotura estua du Txorierrirekin, eta biak izan dira UEUko zuzendariak. Gomendioren bat eskatu diezu?

Martin ezagutzen dut: oso pertsona maitekorra da eta zorionak eman zizkidan zuzendari izendatu nindutenean. Kepa Altonaga lagun mina da eta askotan hitz egiten dugu, eta askotan UEUri buruz.

Zergatik onartu duzu izendapena?

Denbora luzea eman dut UEUn lan egiten, eta momentu batean Lore Erriondo aurreko zuzendariak postua utzi behar


izan zuen. Niri ikerketa izugarri gustatzen zait eta zuzendaria izateak ikertzeko aukera ematen dit, baita UEUren barruan jarraitzeko ere. Gainera, UEUn oso lotura berezia daukat nire ikerketa esparruarekin, hau da, euskararen erabilera unibertsitatean.

Zelango ekarpena egingo diozu karguari?

Oraindik ez daukat argi. Krisi ekonomiko ikaragarria dago momentu honetan eta, ondorioz, gure baliabideak gutxitu egin dira. Eta ematen du datorren urtean berdin-berdin jarraituko dugula. Testuiguru horretan erronka handia da dugun

12 z gurekien munduko onarik onenak Bilhotik hain hurbil saltzen arihararik







SUITE DELUX

MARCA REGISTRADA DE LA FAMILIA BRAND

Coleccionista Tafelberg La Botzanda (PS) Elbow de metalizado 100% 100% 100%	Coleccionista Arborea Paredes de metalizado 100% 100% 100%	Loftana Kalkutal-Ilendia 100% 100% 100%
---	---	---

www.aikor.com

Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) irabazi-asmorik gabeko eta Onura Publikoko aitormena duen kultur elkartea da. 1973. urtean sortu zen Ipar Euskal Herrian eta hauexek dira bere helburu nagusiak: euskararen eta unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzea; euskal komunitate zientifiko-intelektuala biltzea; eta unibertsitate-gaiak ekoiztu eta gizartearen eskura jartzea. Guztira, 1.200 bazkide ditu eta horiek 27 sailetan banatzen dira. Sail bakoitzak jakintza-alor batean lan egiten du eta autonomia da: antropologia, antzerkilaritza, artea, kimika, zuzenbidea... UEUK jardunaldiak eta ikastaroak antolatu eta

liburuak argitaratzen ditu. Besteak beste, Kepa Altonaga loiuztarra eta Martin Orbe izan dira UEUKo zuzendariak.

Batzuek nahasten dituzte UEU eta EHUK udan ematen dituen ikastaroak, baina ez dute zerikusirik. "UEUren esparrua oso zehatza da eta batez ere unibertsitate mailan aritzen direnek eza gutzen gaituzte. Gure erronka izan behar da unibertsitateko ikasle guztiek, edo behintzat euskaldunek, gu ezagutzeara", esan du Karmelek. "UEUK harremanak eduki nahi ditu Euskal Herriko unibertsitate guztiekin, eta harremanak eduki izan ditugu. Une honetan EHUREkin harremanetan gaude, baina

ez dugu proiektu askotan elkarrekin lan egiten, nahiko genukeen moduan. Dena dela, guztion arteko elkarlana sustatzeara interesatzen zaigu".

UEUK lau egoitza ditu: Bilbon (egoitza soziala), Eibarren (egoitza akademiko), Iruñean eta Baionan. "Ikastaroak eta batez ere Eibarren egiten ditugu, baita Nafarroan eta Baionan ere. Bilbon, aldiz, gure arteko bilerak eta egiten ditugu". Karmeleren ustez bi eredu ditugu Euskal Herrian. "Hegoaldean, karrera amaitzen dugunean, ikasten edo hezitzen jarraitzen dugu etengabe; Iparraldean, aldiz, karrera amaitzen dutenean, lana topatzen dute eta kito. Hamar edo hamabost urte beranduago lanari utzi, eta jakintzak eguneratzeari ekiten diote".



egoerari eustea: lanpostuak, proiektuak... hots, liburuak edo webgunea. Badakigu oso zaila izango dela eta gerrikoa estutu beharko dugula.

Urte biau baino ez zara zuzendari arituko, ezta?

Bai. UEUKo Estatutuen arabera, presidenteak ezin du lau urte baino gehiago zuzendaritza-lanetan eman. Ni orain hasiko naiz zuzendari, baina urte eta erdi daramat UEUKo lanak koordinatzen eta hori zuzendaritza-lantzat hartzen da. Beraz, 2012an lau urteko epea beteko dut. Geroago, UEUri lotuta jarraituko dut, estatutuen arabera, zuzendari ohiek zuzendaritza taldean jarraituko dute eta. Beste alde batetik, nire ustez, lau urte baino gehiago zuzendari ibiltzea ez da komenigarria, horrek pertsonalismo handiegia sorrarazten baitu: UEU ez da Karmele Artetxeren erakundea, 1.200 lagunek osatutako proiektua baizik.

Komunitate zientifiko euskalduna: azterketa historikoa eta bibliometrikoa



*“Gaur egun aditu
euskaldunak daude
hainbat jakintzatan,
eta horrelakoek duela
25 urte ez zeuden”*



Bai, baina normala da. Izan ere, zientzia hutsetako ikerketek batzuetan izugarrizko eragina dute eta aurrerapenak ekartzen dizkigute eguneroko bizitzan: txertoak, tresnak.... Letretako ikerlariok, aldiz, ez dugu, adibidez, Excalibur aurkituko. Guretzat zailagoa da, gure ekarpenak teorikoagoak direlako.

**ESTILISTA
EVA ARDINES**
AmAr
Ardines Estilista Te ofrece los
últimos modelos de
vestimenta y calzado exclusivos
concretados con la gran moda.

ZAMKIND MOTOR

CONSEJERÍA:
TARIFA 1000000

TEL. 000 1000
TEL. 000 1000

Mr. Tardiff
Mr. J. Brown
Mr. J. Brown
Mr. J. Brown

SANTI MAMI



KARATEKID

ALBERTO

ASSOCIATO 1
CENTRO REGIONALE
DEI FU CARABINIERI



Ekintzaileak hezitzen

Politeknika Ikastegia Txorierri hainbat urte daramatza ikasleen artean kultura ekintzailea bultzatzen. Lana klasean bertan hasten da eta hori enpresak sendotzen diren arte irauten du. Horretarako, hainbat kurtso eta jardunaldi egiten ditu, zeinetara negozioa martxan jarri nahi duten ikasleek zein kanpoko lagunek jo baitezakete.



M^a Victoria Cuartango Politeknikako koordinatzaile pedagogikoa da eta horretaz gainera, kultura ekintzaile arloa ere badu bere ardurapean. Azaldu digun bezala, ikasketak bukatzen dituzten ikasleek ekintzaileentzako zerbitzua dute eskura. Han aholkularitza ekonomikoa eta finantzieroa jasotzen dute, eta jarri nahi duten enpresak ikastegian ematen diren irakasgairen batekin zerikusia badu laguntza tekniko ere eskaintzen zaie. Era berean, ekintzaileei zuzendutako bulegoa erabil dezakete, besteak beste lehenengo urratsak emateko edo bezeroekin lotzeko. Ikastegian bide bi daude ekintzaileei enpresa eratzen laguntzeko, eta bietan ikasleek zein kanpoko lagunek har dezakete parte.

“Negozioaren osatze-prozesuan ez ezik sendotze-prozesuan ere eskaintzen dute laguntza”

Lehenengo lan lerroa Eusko Jaurlaritzatik bultzatutako Urrats bat sarea da. Sarea kultura ekintzailea sustatzen duten zentroek osatzen dute eta ekintzaileen eskura baliabide sorta zabala jartzen dute, hala nola sormen-teknikak edota diru-laguntzak. Bigarren lan lerroa Worklan elkarte da. “Hori bost Lanbide Heziketa-

ko ikastetxeek sortu genuen orain dela bost urte. Kooperatibak eta lan-sozietateak eratzen laguntzea da gure helburua batez ere. Worklan-en bidez martxan jarri nahi diren enpresa guztiak lan-mahai batean aurkezten dira, eta han ikastetxeok zein sendotuta dauden hainbat enpresen gure iritzia ematen dugu proiektuei buruz, baita aholkuak eskaini ere”.

Enpresako atea ireki eta eguneroko arazoei aurre egitea ez da lan erreza. Politeknika Ikastegiak negozioaren sendotze-prozesuan ere jarraipena egiten die ekintzaileei. Horrela, bada, ekintzaileen arteko topaketak antolatu dituzte, eta konturatu dira guztiek antzeko arazoak dituztela: kontabilitateari lotutakoak, marketinekoak, paperak...

Lan-sareak

“Ikastegitik ahal dugun guztietan laguntzeko konpromisoa hartu dugu, eta Elkarlan kooperatibak sustatzeko sozietatera laguntza eske jotzea ere beharrezkotzat hartu dugu”. Era berean, ezinbestekotzat jo dute sare-lana sustatzea. “Inportantea da ekintzaileek euren esperientziak parteka ditzatela, eta guztien artean baliabideak eta konponbideak topatu. Hau da, laguntza-sareak osa ditzatela”.

Politeknikak eskaintzen dituen programen bidez 40 enpresa inguru sortu dira azken zortzi urtean. Enpresa horietako bat Iratxe Garcíaarena da. Iratxek gozotegi bat zabaldu zuen uztaietan Sondikan. “Negozioa jarri nahi duzu, baina nondik hasi? Ezinbestekoa da nora jo izatea, eta Politeknikan prozesu osoan eman didate laguntza. Eta negozioa martxan jartzen duzunean, pentsatzen duzu: orain nondik jarraituko dut? Hainbat baldintza betetzeko eskatzen dizute, paperak, baimenak... Ikastegia guri laguntzen jarraitzeko prest egotea oso aukera ona da guretzat”.

Gune latzetan murgilduta bagaude ere, Iratxe ez du zalantzarik izan eta negozioa zabaltzera animatu da. “Noiz da momentu ona? Hori ez dakizu. Prezio lehiakorrek eta kalitatea eskaini eta ausarta izan behar da”. Victoria bat dator berarekin. “Krisi garaian lehen ukiezinak ziren proiektuak martxan jartzeko aprobetxatzen da. Horren haritik, Eusko Jaurlaritzak ekintzaileei zuzendutako programak bikoiztu egin ditu, euren negozioa jartzea aukera ona delako prestakuntza handia izan arren lanpostua galdu dutenentzat”.

Tamara

Kapata-denda Osagarriak



Trekitze promozioa
%10eko
beherapena
 (Gehienak arte)

Herrera plaza, 2

Darto

94 656 67 77

Donostia I. ur. Paltzas I. etarra, 6

Loloa

94 461 06 12

tamara@tamara.es



Viguera



REUNION

BRASMA







eta txorieritarrok ere zaletasun handia dugu bertsoetarako. Taberna Ibiltariaren lagunek lekukoa hartuko diete bertsolariari. Hitzordua iluntzeko 8:15ean izango dugu, frontoian. Eta handik Lezamako tabernetara eta kaleetara eramango dituzte euskal kantak eta jarraitzaileak. Xaramelak edonon entzungo dira eta festak gorputzak eta indarrek nahi arte iraungo du. "Ahalegina egin dugu jendearen inplikazioa eskatzen duten ekitaldiak antolatzen", azaldu du Laura Martinez Mankomunitateko euskara teknikariak.

Azaroaren 29an eta 30ean eta abenduaren 1ean eskoletako umeen txanda izango da. Orotara lau urtetik 11 urtera bitarteko 1.085 ume batuko dira frontoian, bakoitzari adinaren arabera dagokion ekitaldian, hain zuzen ere.

Bideoa eskoletarako

Txan magoak 10-11 urteko umeentzako saioa eskainiko du azaroaren 29an, goizeko 10etan, eta hurrengo egunean zazpi urtetik bederatzirter bitartekoak *Mementu ridiccoli* antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute. Saio bi egongo dira: bata, goizeko 9:30ean; eta bestea, goizeko 12etan. Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoez amaiera emango diete abenduarien 1ean Euskararen Egunaren haritik antolatutako ekintzei. Pailazoez ere eskainiko dituzte saio bi: bata, goizeko 9:30ean; eta bestea, goizeko 12etan. Ikuskizuna 4 urtetik 6 urtera bitarteko umetxoei dago zuzenduta.

"Kukubiltxo, bertsolariak eta Taberna Ibiltaria ekitaldi nagusiak izango dira azaroaren 27an"

Adin eta gustu guztientzako ekitaldiak ekarriko dizkigu aurtengo euskararen jaiak. Baina nobedaderen bat ere bada. Horrela, Txorierriko eskola bakoitzak bideo bat prestatu du, eta han ikasleek eta irakasleek euren burua eta eskola bera aurkeztu dizkiete gainontzeko eskolakoei. Eskola bakoitzak bideoaren kopia bat agindu die besteei, ikasleek klasean ikusteko. Beste alde batetik, bertsolaritza eskolakoek abesti bat prestatu dute eta hori ere bideo barruan sartu da. Bideoa frontoian emango dute ikuskizunak hasi baino lehen. "Bideo horrek eskoletako ikasleen arteko zubia izatea du helburu, elkar ezagut dezaten, eta giroa sortzea errazagoa izan dadin".

Euskararen Eguna Txorierriko euskaldunok eta euskaltzaleok egutegian ondo baino hobeto idatzita dugun hitzordua da. "Aurreko edizioak erabat arrakastatsua izan dira eta oso giro polita sortu da beti. Espero dugu aurten ere horrela izatea".



Erromeria jesarlekuan


t/a: Sabin Arana




Aurreko baten aitamena egin genduan Guerra-Gaztelu Larrabetzuko jauregiaren gainean (gaur egun Icaza jauregia legez ezagutzen dana). Halanda be, oraingo honetan etxeko beheko solairuan, sarreran, lehen egoan jesarleku bitxia eukiko dogu hizpide. Etxean bizi zanak bere garaian esan euskun legez, jauregi-ko ugazabak beste nonbaiten erosita e-karri eban Larrabetzura; Durangaldean, beharbada.


Altzaria XX. mendearen erdialdean bihurtu ei zan etxeko apaingarri. Jesarlekuan irudi xume bat egoan grabauta, baina oso adierazgarria zana. Egileak tokiko

Jesarlekua egoera onean egoan eta ha egiteko material ona erabili ebela emoten dau. Altzaria artisau edo arotz xume batek egin ei eban, baina gure ustez ondo baino hobeto lortu eban bere helburua: erromeria irudikatzea. Jesarlekuaren goiko aldean biribil klasikoak landu zituan apaingarri, eta bitxikeria legez, txakur bat dantzari baten atzean.





1991



Kasu honetan, dantzariak eskutik helduta agertzen dira. Gizonek hankea dabe altzauta, eta emakumeak beste era bateko dantzea egiten dabilzala emoten dau; dantza estatikoagoa. Artisauak dantza mueta hori be irudikatu gura eban, agian.

[illegible]

Derioztarrak munduan zehar

Derioztarrak ibili badabiltza munduan barrena, eta hala erakutsi dute "Derioztarrak bost kontinenteetan. D5K" hitzaldietan. Bost egunetan bost bidaia kontatu dizkigute, Tximintx euskara elkarteak antolatutako hitzaldi-sorta horretan. Bost bidaia, bost leku, zein baino zein erakargarriagoak.



t: Bestorrene / a: Bidaia-riak

Hitzaldien laburpen bat baino ez dugu ekarri lerro hauetara. Beste batzuek, ordea, zorte handiagoa izan eta kontakizun osoez gozatu dute. Hizlariak hauek izan ziren: Jon Ander Rola (Vietnam), Eneritz Nerea, Oihana eta Oihane (Boise), Oihane Goienetxe eta Mikel Ozaita (Maroko), Eider Palmou eta Txerra Rodriguez (Dolomitak, Hego Tirol) eta Aitziber Mugarra (Islandia). Boiseko jaialdian egondako neskek aldizkari honen aurreko ale batean eman zuten euren bidaia-zen berri; beraz, beste tokietara abiatuko gara.

Vietnamdarrek munduko lau potentzia militar handienei egin diete aurre euren historian: Txina, Japonia, Frantzia eta Estatu Batuak. Eta gai izan dira haiek guztiak euren herrialdetik kanporatzeko. Gehien kostatu zaiena ekonomia suspertzea eta bizi-maila hobetzea izan da, baina bidean ei daude. Kontrastez ere egin dugu berba: itzela da gurekin alderatuta, baina baita Asiako beste herrieekin ere, esaterako Thailandiarekin.

Bidaia Hanoin hasi (iparraldean) eta Ho Chi Minh hirian (lehen, Saigon) amaitu da. Iparraldea nekazariagoa da, lasaia, ziurragoa...; hegoaldea, hirirragoa. Bidean Ha-Long badiako harritarrak ikusi ditugu, dragoiak ei direnak. Hue hiri inperiala bisitatu dugu, eta hainbeste gerraren ostean gelditzen diren monumentu bakanak ere bai. Mekong-eko eta beste ibaie-

tako txalupak ezagunak egin zaizkigu. Eta, bereziki, herritarrak, atseginak eta langileak direnak, eta bizikletetan eta motorretan edozein gauza eramateko gai direnak.

Saigonetik 30 kilometrora ikusgarriak dira Vietcong-ek gerrarako zituen lur azpiko leku ezkutatuak. Eskerrak hangoak txikiak direla, bertan sartzea ez baita batere erraza. Vietnam aurrera doan herri indartsua da, Asiako tigre berria.

Marokora autoz

Euskal Herritik autoz irten gara. Ceutara ferryz pasatu eta Marokora heldu gara. Xauen hiriko medina ezagutu dugu, Fez hiri inperialeko labirinto-itxurako medinatik ibili gara pasieran, eta hainbat gremioren lanak ikusi: alfonbragileak, oihalgileak, zeramikagileak...

Festik Erg Chebbiko dunetaraino garmeluz joan eta hango kanpamentuan eman dugu gaua. Paisaia aldatzen joan da eta Todra ibaiaren zintzurreraino eramán gaitu. Marrakexen, Djemaa el Fna plazako giro bizia ezagutu beharrekoa da iluntzean. Kostara jo eta Essauira arran-



Eta jolas egitea, bustitzea, gozatzea. Islandia hori eta beste mila gauza gehiago delako. Buruan ideia bakarra dugula itzuli gara izotzaren lurretik: hara joatea merezi izan du, merezi izan du.

ABENDUA - EGITARAKA

Zorionak eta ondo berriak!









VIAJE MÁGICO A ÁFRICA 🌿
I. GARCÍA M. ELIZABETH
Igualda 9-12:00h

"KIRK"
ANLEZUE ESCULAIEN KANON
Igualda 12-15:00h

🌟 **LOS ILLOS DE JIM LA**
Larrea M. ELIZABETH
Igualda 9-12:00h



EGOI NI VILLANO I APATITO 🌿
Larrea M. ELIZABETH
Igualda 9-12:00h



LA TROVA DEL TRAPO 🌿
MI MI PAGO BORDO-CHOPIN KINO LALE- KIN
Larrea M. ELIZABETH
Igualda 12-15:00h

🌟 **LA ROSA DE CHICAGO**
Larrea M. ELIZABETH
Igualda 9-12:00h



OLENZERO
KONTZAKAKO DINTZAKO Pasaia M
Igualda 12-15:00h


🌿 **EN BUKEN MUSIKA I SKIN ARI MI**
SABONETAKO KONTZERTUA
ARZOBISPO M. ELIZABETH

"ZIRKA ZIRKUS"
Sarrakileak elizketa- Ferraia den
ARZOBISPO M. ELIZABETH

VIRAS ENLAPAS
Eko Ferraia
ARZOBISPO M. ELIZABETH
ZORIONAK







GUREA ARETOA
LARRAUN KANON 2 - WWW.ARTXKINON.BAY




“Urtean 220.000 litro ekoizteko gauza izango gara”

PEDRO MARI OLABARRIETA |
Txorierriko Upeltegien Alkartea

Txorierriko eta inguruko ekoizleek txakolingileen eta mahastizainen Bizkaiko lehenengo kooperatiba osatu dabe. Kooperatibak bere upeltegia izango dau eta dagoeneko hasieraa emon deutsee hori altzetako beharrei. Talleri upeltegiaren lehenengo harria azaroaren 5ean ipini eben Morgan. Perdo Mari Olabarrieta kooperatibaren presidentek azaldu deuskuz proiektuaren gorabeherak.



t: Itxaso Marina

Zergaitik kooperatiba osatzea?

Orain dala urte batzuk, Larrabetzun Iturrialde upeltegia zabaldu zan garaian, ekoizle txikiok ondorio hau atera genduan: batu ezean gure etorkizuna gatxa izango zala. Izan be, ekoizpen txikiagoa euki arren, ekoizle handiek beteten dabezana arau berberak bete behar doguz. Eta edozein gauza erosteko orduan be, landara-osasunerako produktuak, botilak, kortxoak... garestiago ateraten jaku, eskatera txikiak egiten doguzalako. Foru Aldundiko Nekazaritza Sailagaz batu eta gure egoeraren barri emon geuntsen. Alkartu ezkerro, 15 hektarea barri ipinteko baimena emongo euskuela esan euskuen, eta halantxe egin genduan.

Zenbat kide zarie?

Gaur egun 17 kide gara. Gutariko bederatzi upeltegiak dira; eta gainontzekoak, ekoizleak. Upeltegiek itxi egin dabe, ardaoa eta txakolina guztiok Talleri upeltegian ekoizteko. Kideak hainbat herrietakoak gara: Morga, Lezama, Larrabetzu, Zamudio, Derio, Gamiz, Fika, Loiu, Muxika, Barrika eta Erandio.

Tradizinoa eta modernitatea batzen dituan eraikina



Iñaki Uribe Morgako alkateak, Elena Unzueta “Bizkaiko Txakolina” jatorri-deiturearen presidentek eta Pedro Mari Olabarrieta Txorierriko Upeltegien Alkartearen presidentek Talleri upeltegiaren lehenengo harria ipini eben azaroan. “Proiektuak helburu bi ditu: alde batetik, txakolingile txikien atomizazio-agaz amaitzea Bizkaian; eta bestetik, ekoizleen alkartzeari esker, produktuaren ekoizpena, komertzializazioa eta banaketara hobatzea”, esan eban Olabarrietak.

Hasiera baten, upeltegia Txorierri berton eregiteko asmoa euki eban koo-

peratibeak. “Proiektua udal guztiei aurkeztu geuntsen, baina ez zan aurrera atera. Morgako Udalera jo eta hango alkateak gogotik hartu eban. Laguntza handia emon deusku: lurra topaten, mahastiak jarten...”

Talleri upeltegiak 1.661 metro karratu ditu eta eraikina Roberto Hernando arkitektoak diseinatu dau. Hernandok mahats-mordoa hartu dau oinarritzat, eta tradizinoa eta modernitatea batzen dituan eraikina asmatu dau. Horrela, bada, egurra eta kobrea nagusi izango dira eraikinean. Gainera, upeltegia azken belaunaldiko teknologiez horniduko da. “Beste alde batetik, upeltegia jendearentzako zabaldu eta bisita gidatuak egiteko asmoa dogu”.

Morgako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren baimenak ditu proiektuak, eta Eusko Jaurlaritzak eta Zientzia eta Teknologia Ministerioak diruz lagunduko deutso.



"Produktua Estadura, Europara eta Estadu Batuetara be zabaltzeko askoa dogu"

Txorierriko ekoizle guztiak, edo asko, ez dira proiektuan sartu...

Bakotxak inbertsino handia egin dau bere instalazioetan eta, lehenengo eta behin, diru hori amortizau egin behar da. Baina askok ateak zabalik ixteko eskatu deuskue, etorkizunean eurak be proiektuan sartzea izan leitekela.

Zenbat hektarea mahasti dozue guztira?

Hogeita bi. Mahastiek %100 emoten dabenean, urtean 220.000 litro ekoizteko gauza izango garala uste dogu. Dana dala, upeltegian litro gehiago egiteko gaitasuna dago, 300.000 litro hain zuzen be. "Bizkaiko Txakolina" jatorri-deiturea dabene txakolin zuria, gorria eta baltza ekoiztuko doguz, baita ardao apardunak eta

beranduko mahats-bilketaren ardaoak be. Hiruzpalau marka aterako doguz eta produktu muetaren arabera, bata edo bestea jarriko da.

Upeltegia datorren uztarako mar- txan egotea itxaroten dozue; halanda be, kooperatibaren lehenengo ekoiz- pena aurton egin dozue.

Bai, guztira 25.000 botila ekoiztu doguz eta horreek Kooperatibaren markeagaz komertzializauko dira datorren urtean. Talleri upeltegian, eta datorren urteko uztari jagokonez, 100.000 botila inguru ekoiztea itxaroten dogu. Ekoizpen hori 2012. urtean egongo da salgai. Produktua Euskal Herritik kanpo be zabaltzeko asmoa dogu: Estaduan, European eta Estadu Batuetan.

Proiektuan ilusinoa, ahalegina eta dirutza, lau milioi euro, inbertidu do- zuez. Onurea inbertsinoaren beste handia izango da?

Halan izatea itxaroten dogu. Egin dogun apustuak onurak arlo guztietan ekarriko deuskuzala uste dogu, baina hori pitinka-pitinka ikusten joango garen asuntua da.



DONOSTIA KULTUR ETXEA
Lazaro Kalea, 1 (Aldonbarrak Nerea)
Telefonoa: 943 493 400

Abitatuak: 18an, 17:30etan

"GIPUZKOAN ETA ENEAN HAZIETAN"



Argazkiak: J. L. L. L.
Guztira: 12
12.000.000

ANTZERKIA

Marino Lizarri (1984, 27.10.1984)

"HONAKI PIRE"

Argazkiak: J. L. L. L.
Guztira: 12
12.000.000



MUSIKA

Abitatuak: 18an, 20:00etan

"BOSTAHOA HAZIETAN"

Argazkiak: J. L. L. L.
Guztira: 12
12.000.000











Jarrera eta lana, bateraezinak?

Luis Mari Asensioren kontsultara jotzen duten lagunen %80k gerriko arazoak dituzte. Lanean jarrera ez egokiak izateak eragina du arazo horietan. Terapiak lagundu diezaguke, baina ezinbestekoa da gure ohiturak aldatzea.

t: Itxaso Marina

Egoneko lana eta jarrera-ohitura txarrak gehienetan elkarri lotuta dauden kontzeptuak dira. Egoneko jarduera bat egiten dugunean, ordenagailuaren aurrean lan egitea adibidez, zama gehiena erdiko bizkarrezurrak hartzen du; hau da, bizkaraldeak eta gerrialdeak. Gainera, ordenagailua albo batera okertuta bada, horrek konpentsazio antialgikoa sortuko digu, zeinak denboraren poderioz tentsioak ekarriko baitizkigu erdiko gerrialdean, saihesten-hezurretan, bizkarrezurrean edo diafragman. "Baita errailetan ere. Presioa egiten da urdailean eta beste ondorioen artean, jateko gogoa galdu edo urdaileko pisua izan dezakegu", azaldu digu Asensiok, Lasai Derioko kabinete-ko osteopatak. "Pisutasuna nabaritzen dugunean, komenigarria da edozein aukera aprobetxatu eta bost minutuan zutunik egotea: fotokopiak egin, komunera joan... apur bat mugitu, azken batean".

Asensiok esan digun bezala, ordenagailuaren aurrean jarrera egokia hartu



behar dugu. Hala ere, ez dugu zuzen-zuzen edo tentsioan egon behar, eroso eta erlaxatuta baizik. Ordenagailuaren aurrean kokatu behar gara. Aulki terapeutiko batez baliatu gaitezke sorbaldan zuzen izateko. Era berean, komenigarria da oinak zorutik apur bat altxatuta izatea. Horretarako, banku txiki bat erabil dezakegu. Ordenatua izatea ere bada ezinbestekoa. "Gauzak, paperak... leku batean eta bestean topatzen ibiltzeak estresatu egiten gaitu, eta horrek nerbio-sisteman eragina du: muskulu-tentsioak, buruko mina, arazo zerbikalak... Eta alderantziz ere bai. Lan-karga handiak ere estresa ekar diezaiokete pertsona bati. Estresak eragina du nerbio-sisteman eta horrek, bere aldetik, eragina du muskuluetan, jarrera antialgikoa sortuz".

Egunean zehar ordu asko eserita ematen duten lagunek dituzten arazotariko batzuk zifosia eta eskoliosia dira. "Bizkarrezurra biribiltzen joaten da, muskuluek tonifikazioa galdu eta ahultzen direlako. Gaitz hauetariko bat duten lagunek muskulu abdominalak eta goiko sor-



GARAIOLTZA, S.A.
 PROMOTIOKAK ERAIKUNTZAK

Erabilgarritasunak
 Merkataritza-irabazak
 Garaiolak
 Informazioak eta abarrik
 Edukiak handiak
 Gidatutako erakundeak

Tel.: 94 455 50 19

Garaiola, S.A., C/1.º de Mayo
 1.º planta, 48001 Leizor



Beroa daukat

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

- Eguzkia indartsu gaur Luki.
- Bai, goiztiar hasi dok nagiak ataraten.
- Eguneroko akeita, ez?
- Gaur Zipiri –Aita Santua ibili danez Galiziatik eta Kataluniatik- atara **eistek** capuccinoa, baina kanela barik.
- Kanela bako capuccinorik **etxauk**.
- Eta nor dira mahai horretako neska-mutilok?
- Kazetaritzako estudianteak zeuri grabaketa egiteko itxaroten.
- Niri Zipiri?
- Bai ba, euskaldun peto-petoa hazela esan jeutsiet-eta.
- Egun on Luki jauna!
- Egun on gazteok! Zertan zabilte?
- Inkesta egiten, euskaraz esaldi batzuk zelan esaten diran. Bardin badeutsu bideoz be grabauko zaitugu.
- Itxaron apur baten espilura noan artean. Honeek uleok!
- Lehenengo galdera: Zelan esaten dozue “Buenos días” euskaraz?
- Goizez bada, egun on.
- Eta arratsalde?
- Arratsalde ez da esaten egun on.
- Zelan esango zeunke zeure euskarari “Vida y obras de Calderón”.
- Calderonen bizitza eta eraikinak.
- Zein da esaldi honen itzulpena? “Por

Dios, por la Patria y el Rey”.

–Jainkoaren partea erregeak. Hau itzulpen librea dozue, *Ad sensum* egin dot.

–Lagarren itaun hau Luki jauna oso garrantzitsua da inkestarako.

–Ai ene, gazteok! Txori balego hemen harek bai jakingo leukeala ze, Deustun Gotzon Garate idazle jakintsuarekin filologia ikasia da-eta.

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

–Orduan, zelan esaten dozue, Luki jauna “Daños a terceros”.

–**Joño!** Gatxa gero! “Daños a terceros” esaten dogu: Kontuz hirugarrenarekin!


–Bikain! Eta “¿A rey muerto, rey puesto?”

–Katu bat **akabeu**, beste bat ekarri, saguak ez igarri.

–Azkenik, zelan esango zeunke gaztelaniaz, beroa daukat?

–Tengo caliente.

–Eskerrik asko Luki jauna. Bai euskara ederra zurea!



01 45 45 34 47
www.aikortxori.com




T. 04 454 3574
www.aikortxori.com

Oferta especial GOLF GASTRONOMICO
Reserva: 1 o 2 platos de menú, menú de vino y menú de postres
especial y un green fee para campo de 18 hoyos.

45€

por persona - IVA incluido



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zeren bila
dabil Kurutze
dantza taldea?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
250 lagun
Irabazlea:
Eneritz Larrañaga

ABENDUA

Txartela erabiltzeagatik sariak

10€ 20€
5€ 50€

ZINEMARAKO BI SARRERAK
ZOZKETA

GABAI GASOLINDEGIAN %2ko DESKONTUA

Bakoren bazterra**Ardo dastaren egunerokoa
Toscana 1 (Italia)***Iñaki Suárez, sumillerra*

Beilegia, berdea, okrea eta lila. Horra inguruan ditudan koloreak, *Acienda Agricola* –nekazaritzako ustategiei deitzen diete horrela– hurbildu ahala; sangiovese mahatsondoek eratutako geruza kizkurtu leun batek janzten du lurra, eskuz egindako alfonbra batek bezala. Konbinazio magiko batek etxera itzultzen den etrusko zahar bat bezala sentiarazten nau; koloreak eta uztak biltzen dira konbinazio horretan, eta mahatsondoak eta olibondoak, eta arte, gaztaina eta altzifre basoak. Zein arrazoi handia duen Ferenc Matek bere eduki erromantikoarengatik horditzen duen paisaia hau deskribatzen duenean *Un viñedo en la Toscana* liburuan (uste dut Bill Evans berriz jaioko litzatekeela brisarekin)!

Florentzia, Siena, Montalcino eta Montepulciano artean zabaltzen den margolanak hunkitu egingo zaituzte benetan, aikorlagunok, harako bidea hartzen baduzue. Ipar zerrendan, mundu osoan ezagunenak diren ardoak gozatu ahal izango dituzue; alegia, Londresko Sohotik Sydneyraino gehien saltzen direnak, Chianti izenekoak, bertako moten artean nagusi den horrekin, La sangio-



vesse delakoarekin alegia, egiten direnak. Ardo bikainak, umotze-puntu altukoak, basoko fruituen esentziak jaulkitzen dituztenak espeziak arinki ondurik, bikainak eta desberdinak. Hegoaldean, bertan Supertoscans deitzen diren ardoak, kanpoko motekin (cabernet sauvignon, merlot, syrah...) eginak, oso ondo ondauk, fruitu ukitu handikoak, mamitsuak, kafe, larru eta espezieen lurrin tertziario bikainekin. Oso esker onekoa da eskualdeko gastronomia, arrandiarik gabekoa, zorgarri erabiltzen dituen onddoak, pasta eta txerriak.

Ez ezazue pentsa ez naizela zuetaz oroitu; inor Toscanara bidaiaren bat egiteko asmotan bazen edo bada, erreferentzia batzuk ekarri ditut bisitatzeke, jateko, edateko eta lo egiteko tokiei buruz, ezin baititut utzi zuekin partekatu gabe, baina hurrengo alean izango da hori. On egin!


Etxeko sukaldaritza**Pipermorro-konfiturea***Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- Lau pipermorro handi
 - Bi edalontzi azukre
 - Edalontzi bat ur
 - Edalontzi erdi ozpin
- (“Nocilla” edalontzi txiki bat erabili daitekegu, neurriak hartzeko)

Prestateko area:

Piperrak garbitu eta ondo txikituko doguz, eskuz edo txikigailuz. Osagaiak batera ipiniko doguz egosten. Su bizian 10 minutuan izango doguz; eta ondoren, 80 minutuan su eztian. Dana ondo irabiau dogu, konfiturea ez dalako lodiegi lotu behar.


Ogi txingortuan gaztai birrindua eta konfitura apur bat igurzten badogu, goxo-goxo egongo da.



Antzerkia eta filmak

Derio

- > Kiki, Koko eta Moko pailazoak. Abenduaren 23an, 18:00etan, frontoian. Danerik paraje! elkarteak antolatua.



Zamudio

- > Ipuin ez ipuin antzezlan, Eidabe taldearen eskutik. Abenduaren 3an, 18:00etan, Zamudiotorren. Lagatzu elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > La abuela tenía razón. Abenduaren 6an, 17:00etan, Gure etxean.

Erakusketak

Sondika

- > "El silencio del ser", Koldo Etxebarriaren eskutik. Abenduaren 1etik 16ra, liburutegian.
- > Gabonetako postalak. Abenduaren 20tik 31ra, liburutegian.

Hitzaldiak

Sondika

- > Argazkilaritza. Abenduaren 19an, 10:30ean, Kultura Etxean. Sondika-Goiri argazki elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > Txorierriko bidegorria. Abenduaren 2an, 19:00etan, Anguleri kultura etxean. Gurasoen elkarteak antolatua.

Ikastaroak eta tailerrak

Derio

- > Aeromodelismoa, umeentzat. Abenduaren 19n, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, frontoian. Subyke klubak antolatua.

Zamudio

- > Udal ikastaroetan izena ematea: abenduaren 23ra arte.
- > "Familiak ere baditu bere kontuak" ipuin saioa, hiru urte gorako umeentzat eta gurasoentzat. Abenduaren 11n, 11:30ean, liburutegian.
- > Errezeta liburu irudiztatua, 18 urtetik gorakoentzat. Abenduaren 15ean, 18:00etan, liburutegian.
- > "Euskal Herriko kondairak" ipuin saioa. Abenduaren 18an, 11:30ean, liburutegian.
- > Gabonetako tailerrak. Abenduaren 20tik 24ra, Ludotekan.

Irteerak

Sondika

- > Busturia-Bermeo-Mundaka. Abenduaren 18an, Sondika-Goiri argazki elkartearen eskutik.
- > Altunaga-Zeanuri. Abenduaren 19an, Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua.

Derio

- > Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa. Abenduaren 18an, Tximitx euskara elkarteak antolatua (tximintx@gmail.es).
- > Gorbeia. Abenduaren 19an, 19:30ean, Nagusien Etxearen aurrean. Untza mendi taldeak antolatua.

Kirola

Zamudio

- > Gimnasia erritmikoaren erakustaldia. Abenduaren 18an, 18:30ean, kiroldegian. Miragarri taldearen eskutik.
- > Taekwondo Punset-en erakustaldia. Abenduaren 19an, 10:00etan, kiroldegian. Doyan gimnasioaren eskutik.

Lehiaketak

Sondika

- > Gabonetako Postalen Lehiaketaren sariak ematea. Abenduaren 17an, 19:30ean, liburutegian.

Derio

- > Erakusleihen Txapelketa. Abenduan zehar, Danerik paraje! elkarteak antolatua.

Zamudio

- > Billar Txapelketa. Abenduan, Gazte estazioan.

Musika


Sondika

- > Gabon-kantak. Abenduaren 19an, 13:15ean, elizan.


Bestelakoak

Derio

- > Gabonetako bingoa. Abenduaren 17an, 19:30ean, Nagusien Etxean.
- > Janaria batzea, Saharara agintzeko. Abenduaren 1etik aurrea, Eroski eta BM supermerkatuetan.



**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalia da handia egiten dugu berriketa alorrean hegazkin-motor eragikomuguek eta alternatibak CO₂ gutxiago erabiltzeko dutenak. Urteak dira, berriketa teknologikoa gure enpresa bakoitzaren erantzukizun da. Gure enpresa teknologikoa da. ITP berriketa, ingurumen alorrean. Taldearen integratua jaxi duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara. Ingurumenen eragikomuguek eragindako berriketa bakoitzak gure enpresa bakoitzaren erantzukizun da.



RPM INFORMATIKA HANDIZKARIAK
PILOA POLIGONA 2C, 5. PAB. - ZANDIO-
TTL: 944 521 544 - rpm@rpaonline.com

HANDIZKARIAK GARA, HORREGATIK ESKAINI AHAL DIZKIZUGU PREZIORIK ONENAK

PREZIORIK MERKEENA, BAINA NEREZI DUZUN ARRETAK EROSI BAINO LEHEN, GURI GALDETU...

ERAMANGARRIAK ETA PC-AK, MARKA GUZTIAK



GPS-AK EGONERATZEN DITUGU



TELEBISTAK



NEURRI GUZTIERAK

KONTROLAK ETA OSAGARRIAK ITOPAK ERE JAKITZEN DITUGU



BIDEA ETA ARGIZKO-KAMERAK



INFORMAZIOAK / FUNKZIO ANTZERAK



ERAMANGARRIAK / INFORMAZIOAK



**%80-RA ARTE
AURRETU INPRIMATZEAN**

BEREITASUNA: OBTALARITZA



**UKIPEN-TOP
Programak
Telebistak
prolektio-pantallak**

ERAMANGARRIAK OSAGARRIAK



**MALETAK, SAGUAK,
HAZAGAILUAK...
1000K GORA ERREU**

MANTENTZE ZERBITZUA ETA TEKNIKAK



**13 URTE BAINO
GHEAGOKO ESKARMENTUA**

**1000 m baino gehiago
zura zerbitzura**

